

B

BARREN

TOKIKOM



Zegama-Aizkorri “ahaztezina”

Maite Maiora, podiumean

K.E.Y. hizkuntza akademia

Trenbide kalea, 19 behea - Tel: 943 74 30 44 / 653 825 606

Ekainaren 30etik uztailaren 25era ingeleseko ikastaroak goizez

- Haur eta gazteentzako eskolak orokorrean.
- Laguntza eskolak: - Lehen hezkuntza
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
- Batxilergoa.
- Crambridge azterketen prestakuntza

**Ikastaroak
uztailean!**



◆ 2014/2015 ikasturterako matrikula zabalik.

◆ Haurrak eta gazteak, ingelesa, frantsesa eta alemana.

◆ Cambridge azterketen prestakuntza: Young Learners, Ket, Pet, First Certificate (F.C.E.), Advanced (C.A.E)

◆ Laguntza eskolak: Lehen hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa

◆ Helduentzako klase orokorrak



CAMBRIDGE Unibertsitateko

Azterketetarako Batzordeko kidea ES438



OSASUN GIDA



OPTIKAK

65\07

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00

San Bartolome, 10- Elgoibar
Tel: 943 743 734

183\12

UZURI

- Optometria
- Kontaktologia

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00
San Frantzisko, 21

Elgoibar - Tel: 943 740 359

HORTZ KLINIKAK

171\12

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta implanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre enparantza,
5 behea - Elgoibar
Tel: 943 530 053
lekueder@infomed.es

OTORRINOLARINGOLOGIA

183\12

UZURI

- Entzumen protesia
BERRIAI
- Tapoiak neurria (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:
9:30-13:00/ 16:30-20:00

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel: 943 740 359

FISIOTERAPIA

271\12

AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 531 953
Tel.: 669 565 745

177\12

fisio&más

Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzea

- Esku-terapia.
- E.P.I @ (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).

- Mesoterapia homeopati-koa:
+ Traumatologia.
+ Estetika (zelulitisa, es-triak)

Osasunerako ariketa agin-dua
(Diabetes, osteoporosis, hipertensio arteriala)

Entrenamendu gidatua

Pilates makinak
(erabilitazioa)
3 pertsona gehien.

Txirindulariaren biomekani-ka (kalak, ergonomia bizikle-tan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.
Tel.: 943 740 191
667 953 628



Miren Vives

Aupa, Esti! Duela egun batzuk institutu garaiko irakasle batekin topo egin nuen (hegazti beltz kontu haue-
tan ere ibili ohi da be-
ra). Horrenbeste urtez el-
kar ikusi gabe egon ondoren

hamar bat minutuko eguneratze azkar bat egin genuen. Berak ezagutu

gintunean, guk horrela uste ez arren, umeak ginen: gazte izateak ematen dizun hilezkortasun sentsazio horrekin unibertsoa genuen esku-
ra eta bizitza guztia aurretik.

Orduko adina bikoiztu baino gehiago egin dugun une honetan, zenbateraino utzi dugu atzean mundua ezagutzeko grina zuen neska gaztea? Zenbat ametsi uko egin behar izan diegu bidean? Jakin badakigu zenbait asmo ez ditugula inoiz beteko. Ez digu astirik emango, besterik gabe. Baina noizean behin orduan nituen itxaropenak gogoratzea gustatzen zait, pausoak berbideratu ahal izateko egunerokotasunak itsutu baino lehen. Izan ere, bizitzan, pauso bakoitza norberak eman behar du, baita erratutako bidean emandakoa ere. Charles Chaplinek ederki esan zuen: "Bizitza entsegurik onartzen ez duen antzezlan bat da". Eta gurea ere aurrera doa, egunero idazten dugun gidoi bati jarraituz, dramatik komediara saltoka.

“Zenbateraino utzi dugu atzean mundua ezagutzeko grina zuen neska gaztea?”

Baina zertan ari naiz, Esti? Zure 40. urtebetetzea ospatzeko ez al zait gai hoberik bururatu? Atzera pausorik gabeko muga dirudi, gaztetasuna betirako utzi eta heldu bihurtzen garen adina. Baina ni ez nago ados honekin. Ez naiz oraindik zuhaitzetik erortzeko beste heldu. Eta zu? Dena utzi eta Australiako basamortutik bidai bat egitera joaten den horietakoa zara ala yoga eta meditazioari helduko diozu barazki jale bihurtuta? Nola helduko diozu heldutasunari?



Esti Gonzalez

Kaixo, Miren. Idazten ari naizen hontan, oraindik nire urtebetetzeak sortarazitako ajea sumatzen dut nire gorputzean. Biharamun berezi bat. Niri urteak bete eta ospatzea ikaragarri gustatu izan zait beti, eta aurten badi-rudi muga ikustezin moduko bat zeharkatu dudala, nik jakin gabe.

Jende askok aipatu dit hamarkada berri honetan sartzea zein berezia den. Heldutasuna lortzen omen da. Beste batzuk, aldiz, bizitzaren ekuadorrera iritsi garela ere esan didate, eta honek, al-diz, barrua mugitu dit. Nik, ostera, sentsazio eta bibrazio onak ditut. Esan dezaket orain arte lortu dudanarekin zorionsu naizela, eta lortu-
riko pseudo-heldutasun honek pentsatzen dudana inolako arazorik gabe esateko aukera eman didala, kasu askotan lotsa alde batean utzita. Gabriel Garcia Marquez-ek zihoen bezala: *Berrogei urtetik gora ikasi nuen gauzarik garrantzitsuena EZ esatea izan zen erantzuna EZ zenean.*

“Nerabezaroan genuen inkonformismo agorrezina berreskuratu beharra izaten dut”

Batzuetan nerabezaroan genuen inkonformismo agorrezina berreskuratu beharra izaten dut, bizitza eroso eta monotono batean erortzeko beldurrez. Baina adinean baino norberaren nortasunean dago jarrera hau izatea. Batzuk 20 urterekin agureak dirudite, eta beste batzuk, aldiz, 60 urterekin freskotasunez kutsatzen dituzte ingurukoak.

Zure galderari helduz, ez dakit Australiara joango naizen, hala barazkijale egingo. Bidaiatzea beti gustatu izan zait eta lehen aukerarekin gehiago identifikatzen naiz. Momentuz, gure idatzi hau argitaratzen den egunean, Mendarotik kanpo izango naiz. Umetako lagun minek elkarrekin igarotako 40 urte hauek Londres aldean ospatzea erabaki dugulako. Bizitzan gauza eta pertsona garrantzitsuak zeintzuk diren argiagi ikusten baita berrogei urteetako betaurrekoak jantzita.



CORDON VILARCHAO

San Roke, 7 behe
Pai. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 748 670

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zolak ezartze
Latalekuak: egur, aluminio, PVC
Pintura orokorra

**GRUP
VILARCHAO**



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikun.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalaoa Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Amedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrugarte, Mike Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



elgoibar
biZi-biZiKa!



MENDAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikun. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko!

Eskerrik asko Lagunak Pilota Eskolako bazkideak egin zaretenoi: The end, Aterpe, Sigma, Usua, Mahats, Tantaka, Gabi, Orbea, Kaia, Ilunpe, Iriondo, S.karakate, Cordon Villarchao, Maren, Otarre, Doña Mercedes, king-kong, Iratxo, Kiroldegi.T, Ibartxiki, Bire, Servicasa, A.Larrañaga, Idama.I, Gorbea, Leigar, San Roke.T, Jai Alai, Iturri, Siarda, Estudio Arrillaga, Estanco Castrillejo, Astigarraga.K, Cristina Garcia Estetika, Armueta.H, Federop-tica ikus, Garate, Biak.I, Ipintza margoak, Arkupe, Ibarrenea, Muruamendiaraz, Patxi.H, Ileapaindegi estetika, Uzuri optika, Eizagirre.O, Kala Loradenda, Estanco Pepe, Landa.H, Irondo.K, Sugar, Txarriduna.H, S. Kimetz, Nu-Van, Malape, Salento.P, Usatorre, Seguros Arno, Autos Ustarri, Mapfre, Pagoaga, M.Iriondo, Sahatzu.H, Nava imprenta, IZ liburudenda, Julio Bueno, Mekanosa, Ongi Iturgintza, Audio Scan, Plaza Merkaia, AEK, Medibide, Arrizabalaga.H, Z.Mara, Jasone Inprenta, Metala, Uncilla, Madigan's, S.Sanlorentzo, Gobike, A.Zezenbide, Karmel Iriondo, Amagoia Gozokiak, S.Sigma, E.Albaitari klinika, Autos Lerun, Antxustegi, Barola, Karakate.J, Coviran Lorea, Agurtzane.I, Asiator, Swislan, Alkorta, Beristain, Lerun.T, Biena.A eta Azpeleta.E.

Lagunak Pilota Eskola

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakunde zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Erretratu zaharra



1929

Aste honetako erretratu zaharra Ibarreneako Sonia Aranbarrrik ekarri du BARRENERA. Sallobente auzoko Ibarrenea baserrian egin zuten ezkontza batean ateratako argazkia da. Garai hartan arreoa eramaten zuten baserri batetik bestera, eta erretratu honetan argi ikusten da karroan hartu zituztela eramán beharreko guztiak. Argazkian azaltzen diren guztiak hilda daude.

Ezkerretik eskumara: Manuel Zabaleta Elorza, Tomas Zabaleta Arrieta, Ana Elorza Etxabe (Ezkondu behar zuenaren izeba), Jose Zabaleta Arrieta (Bere alaba ezkontzen zen).

**Brasilen
jokatuko
den munduko
txapelketa
bereizmen
handiko
pantailan
ikusi nahi?**



LED HD ready telebista



LED-Full HD telebista

Sustapeneko produktuak agortu arte

MILAR

BIRE

Ubitarte 11
943 741 487
bire@milars.es

EAJk irabazi ditu Europako Legebiltzarrerako hauteskundeak Elgoibarren eta Mendaron

EHBildu izan da bigarren indarra bietan, eta abstentzio handia albiste izan da berriro ere

Gipuzkoan bigarren indarra izan denak irabazi ditu Europako Legebiltzarrerako hauteskundeak Elgoibarren eta Mendaron: EAJK. Elgoibarren, 1.364 boto eskuratu ditu EAJK, duela bost urteko hauteskundeetan baino 112 boto gehiago. Mendaron, berriz, 209 boto eskuratu ditu alderdi jeltzaleak, bigarren indarra izan den EHBilduk baino bi gehiago. Elgoibarren, 8.852 lagun zeuden botoa ematera deituta, eta Mendaron, 1.454.

Nolanahi ere, abstentzioa izan da berriro ere Europako Legebiltzarrerako hauteskundeetako albiste. Elgoibarren, %55,94koa izan da abstentzioa, duela bost urtekoetan baino apalagoa, orduan %57,12koa izan baitzen. Handiagoa izan da abstentzioa Mendaron: %58,90koa (2009koan %62,69koa izan zen).

Elgoibarko datuei zehatzago erreparaturaz gero, aipagarria da alderdi sozialistak izan duen boto galera, duela bost urte lortu zituen botoen erdia lortu baitu oraingoan: 454 (2009an 931 lortu zituen). Hala, bigarren indarra izatetik hirugarren alderdi bozkatuena izatera pasatu da.



Bigarren alderdi bozkatuena, berriz, ezker abertzalea izan da, EHBilduk (Herriek erabaki koalizioa) lortu dituen 1.198 botoekin. 2009koetan, 1.131 boto lortu zituzten [Iniziatiba Internazionalistak-Herrien Elkartasunak lortutako 829 botoak eta Aralar-EA-Herrien Europa-Berdeak eskuratutako 302 botoak batuta]. PP alderdiak, bestalde, ehun boto baino gehiago galdu ditu Elgoibarren, 359tik 255era artekoak, eta Pablo Iglesias buru duen Podemos-Ahal dugu alderdiak, Europako Legebiltzarrerako sortutako alderdiak, 149 boto eskuratu ditu. Hego Euskal Herriko mapa politikoan indartsu sartu da erabakitze eskubidearen aldeko ezkerreko mugimendu hau. Hego Euskal Herrian 72.425 boto eskuratu ditu.

HAUTESKUNDE EMAITZAK

ELGOIBAR:

Errolda:	8.852
Abstentzioa:	%55,94
Boto zuriak:	51
EAJ (Europarako koalizioa):	1.364
EHBildu (Herriek erabaki koalizioa):	1.198
PSOE:	454
PP:	255
IU (Ezker Anitza-IU-Iratzarri-EKI):	150
Podemos:	149
UPyD:	69

MENDARO:

Errolda:	1.454
Abstentzioa:	%88,80
EAJ (Europarako koalizioa):	209
EHBildu (Herriek erabaki koalizioa):	207
PSOE:	53
Podemos:	30
IU (Ezker Anitza-IU-Iratzarri-EKI):	28
PP:	18

Ander Aranbarrik irabazi du Trinitateetako danborradarako kartel lehiaketa



Ander Aranbarri 21 urteko gazte elgoibartarrak irabazi du Trinitate jaietako nagusien danborrada iragartzeko zortzigarren kartel lehiaketa. Arkitekturako laugarren ikasturtea egiten dihardu Aranbarrik Donostian, eta kartel lehiaketa batean parte hartu duen estreinako aldia izan da hau. Aranbarrik berak aitortu du azterketetarako ikasten ziharduela jaso zuela saritua izan zela zioen deia.

Atabal elkartek jakinarazi duenez, hamalau lan aurkeztu dituzte herritarrek aurtan kartel lehiaketara, eta sarituak, 300 euro jaso ditu dirutan. Atabal elkarteko Juan Carlos Arrietak jakinarazi duenez, danborrada hasi aurretik jasoko du saria Aranbarrik, Kalegoen plazan. Ekainaren 14an egingo da aurtan nagusien danborrada Trinitate jaien barruan, 23:30ean hasita.

Pertsonaia **Arnaldo Otegi**



Lolita Mondragon ama zuenaren hiletarako eskatutako baimena tarteko, joan zen eguenean, hilaren 22an, Elgoibarrera ekarri zuten Arnaldo Otegi ezker abertzaleko bozemailea. 12:00ak aldera ekarri zuten, gurasoen etxera, eta 14:20 aldera eraman, eskuak eskuburdinekin lotuta, eta kaleko jantzitako polizia inguratuta. Etxetik irten zen uneko argazkia da hau. Bisita ostean, Hodei Otegi semeak beste argazki bat zabaldu zuen aitaren izenean kudeatzen duen twitter kontutik. Aitaren aldamenean ageri zen Arnaldo, irribarretsu biak, eta honela zioen mezuak: "Aitaren etxean, bost urte eta gero".

Euskara **Mintzaeguna**



Euskal Herri osoko mintzalagunen festa zapatu honetan izango da Izarran. –Izarra Urkabustaiz herrian dago, Arabako Gorbeialdean–. Euskaraz jarduteko eta beste herri batzuetako mintzalagunak ezagutzeko aukera ematen du jaiak, euskaldunon sarea hedatu eta indartuz. Iaz, Elgoibarren ospatu zen Mintzaeguna, Elgoibarko Izarra kultur elkarteak 50. urteurrena betetzen zuela-eta, eta ordukoa duzue argazki hau. Gorbeialdeko mintzalagunek hartu dute aurten eguna antolatzeko ardura eta egun osoko egitaraua osatu dute. Egitarau osoa ikusteko: www.topagunea.org.

Ekainaren 7an bukatuko dituzte Sargoateko iturriko lanak, auzolanean

Morkaiko Mendizale Elkartetik jakinarazi dute ekainaren 7an bukatuko dituztela Sargoateko iturri buelta konpontzeko lanak. Goiz bateko lana izango dela aurreratu dute, eta parte hartzera deitu dituzte herritarrek. IMH ondoko tenis pistan elkartuko dira, 7:30ean, eta bazkaltzeko jaitsiko dira etxera. Hamarretakoa Morkaikoren kontu izango da. Interesatuak telefono zenbaki honetara deitu behar dute: 636 994 798 (Aitzol).

Ekainaren 14an ospatuko dute Ikastolaren eguna Mendaron

Mendaroko ikastolako ikasle eta gurasoek egun handia izango dute ekainaren 14a. Ikastolaren eguna ospatuko dute, eta bazkaria egingo dute frontoian. Bi menu jarriko dituzte. Ikasleentzakoak, 10 euroan: makarroiak tomatearekin, albondigak patata frijituarekin eta izozkia eta jogurta. Gurasoentzakoak, 14 euroan: paella, karrillerak saltsan, eta ijito-beso bizkotxoak natillarekin. Prezioan sartuko dira, era berean, ogia, ura, ardoa, sargardoa, kafea eta infusioak. Ekainaren 6a da izena emateko azken eguna (www.mendaroikastola.hezkuntza.net). Dirua Arno guraso elkartearen kontu korrontean ingratsatu beharko da: 2095 5054 11061713557.

Plazatik Gaztetxerako finala bihar, Soraluzen

Am Maia Iturriotz eta Mikel Iturriotz, eta Asier Aspiroz eta Adur Gorosti bikoteak sailkatu ziren Elgoibarren bihar Soraluzen jokatu den Plazatik Gaztetxera txapelketako finalerako. Finalean arituko diren beste bi bikoteak hauek dira: Maddi Sarasua eta Manex Astigarraga eta Jokin Bergara eta Manu Goigana. 16:30ak aldera hasiko da saioa.

FRANCISCO RIVERO

ERRETZAILE IZANDAKOA

Tabako kerik gabeko astean gaude, tabakoak sortzen dituen kalteez kontzientziatzeko astean, eta asmo horrekin kalera irten ziren atzo Elgoibarko anbulategiko sendagileak. Erretzeari laguntzeko baliabide eta tratamenduak eskaintzen dituzte anbulategian eta haien berri ere eman zuten. Hain zuzen ere, anbulategian erretzeari lagatzeko laguntza eskatu duenetako bat da Francisco Rivera.

Ainara Argoitia

“Tabakoaren esklabo nintzen”



Zerk bultzatu zintuen erretzeari lagatzera?

Beharrak. Ikusten nuen goizero ez tulka jaikitzen nintzela, katarro txiki bat harrapatzen nuenean arnasa hartu ezinda gelditzen nintzela... ezin nuen horrela jarraitu. Behin baino gehiagotan saiatu nintzen lagatzen aurrez ere, baina ezin, beti jausten nintzen, eta gainera, saiakera bakoitzaren ondoren gehiago erretzen hasten nintzen. Saiatu nintzen Nicorette txikleekin, pastillekin... saiatu nintzen egunean gutxiago erretzen ere, baina ezer ez. Azkenean Agote sendagileak [Jose Antonio Agote] ohartarazi zidan bazela erretzeari lagatzeko ordua eta eguna jarri behar nuela. Ostiral bat-edo zen, eta ‘astelhehenean laga-ko diot’, erantzun nion nik.

Zenbat erretzen zenuen?

Eguneko gutxienez bi tabako pakete, baina batzuetan gehiago ere bai. Asko erretzen

nuen, izugarri. 7:00etan esnatzen nintzen lanera joateko eta jaikitzerako zigarroarekin pentsatzen nengoen. Di-da batean jantzi eta komunera orduko pizten nuen zigarroa. Tabakoaren esklabo nintzen. Egun osoan eskuan izaten nuen zigarroa. Ez nuen zigarroa osorik erretzen, erdia erretakoan itzali eta beste bat pizten nuelako.

Noiz erre zenuen zure lehenengo zigarroa?

14 bat urterekin. Badakizu zer izaten den garai horretan. Nesken aurrean gizon plantak egitearren hasi ginen tontakeri honetan, eta zoritxarrez gustatu egin zitzaigun, eta, jakina, konturatzerako harrapatuta geunden, *engantxatuta*. Aitak sekula ez zidan esan ez erretzeko, baina beti esaten zidan ez nekiela ondo zertan ari nintzen. ‘Konturatuko zara egunen batean’, ohartarazten zidan, eta hori erretzailea zela bera ere. 14 urterekin hasi

nintzen, eta 54 urte dauzkat gaur. 40 urte Tabacaleran kotizatzen! Pentsatze hutsak mina ematen dit.

Sendagilearen laguntzarekin ari zara oraingoan. Zein da lan egiteko modua?

Jarraibide batzuk ematen dizkit Agotek, eta hasieran galderak ere egiten zizkidan, nere buruan eragiteko asmoz. Adibidez: ‘Zu konturatzen zara zein kalte egiten ari zaren emazteari? Berak ez du erretzen, baina zuk botatako kearen erruz, minbizia izateko arrisku handiagoa du. Jabetzen zara?’, galdetzen zidan lehenengo saioetan. Eta zer pentsatua ematen zidan, jakina. Lehenengo saioan tabakoari uzten laguntzeko zeintzuk aukera neuzkan azaldu zidan. Esan zidan taldeko saioak eta bakarkakoak zeudela eta saiatu nintekeela botikekin arinago egiten ere. Botiken alde egin nuen. Lehenengo hamabost

egunetan pastilla batzuk hartu nituen, baina jarraitu nezakeen erretzen, eta kaxa eta erdi pastilla neramanean Agotek egutegian egun bat markatzeko agindu zidan.

Tabakoa zein kaltegarri zen ohartarazi zizun sendagileak, baina hori jakingo zenuen ba ordurako, ala?

Bai, jakina, baina nik menpekotasun handia nuen, eta egoera horretan kontua ez da ez duzula laga nahi, ezin duzula baizik. 'Nahi zenuelako erretzen duzu' esaten zidaten neri, baina ez da egia. Hasiera-hasieran hala izango zen, neuk nahi nuelako erreko nuen, baina gero ez. Gero beste kontu bat zen. Erretzen nuen gorputzak eskatu egiten zidako, nire gorputzak behar zuelako. Hori da droga menpekotasuna izatea, dela tabakoarena, alkoholarena edo beste edozerena. Tabako paketeen bertan ere jartzen du tabakoak inpotentzia sortzen duela, minbizia ekar dezakeela... Nik horiek badakizkit, baina beti topatzen nuen ihesbide bat: 'Inpotentzia sortzen duela? Eta neri zer ardura dit ba horrek 54 urterekin! Minbizia gara dezakegula erretzeagatik? Bai, baina kutsaduragatik ere bai.

Noiztik zaude erre gabe? Azaroaren 4tik.

Nola daramazu? Igarri duzu hobekuntzarik?

Hasieran baino hobeto daramat, eta askoz hobeto sentitzen naiz. Bukatu ziren goizetako eztulak eta ordutik ez dut katarro bat hartu eta beraz ezin diezazuket esan arnasaren kontuan hobetu dudana, baina behintzat ez daukat arnasatsik, tabakoarena ez behintzat. Erropek ez dute tabako usainik eta emazteak esaten dit etxean ere ez daukagula lehen besteko kiratsik. Eta, jakina, poltsikoan ere ikaragarri igartzen dut. Tabakoa lagata aurreztu dudanarekin aukera daukat emaztearekin oporretara kanpora joateko.

Inoiz esan diozu zeure buruari: 'Bat bakarrik, gehiago ez'.

Bai. Badakizu zenbat bazkari eta ospakizun izaten ditugun hemen? Alkoholiko batek ere esango dizu hori. Guretzat tabernak itxiko balituzte, mesede. Ez, serio. Ezin da bat probatu, jausteko arriskua handiegia delako. Gurea ez da gaixotasuna, gurea menpekotasuna da, eta alkoholikoen kasuan moduan, tentazioan erortzeko arriskua beti dago. Zigarro bat erretzea nahikoa da jausteko. Nik orain arte ezin izan dut, eta orain momentuz gogor nago. Gogoan daukat, baina, behin etxetik irten eta nere aurretik zihoanak ziga-

rra piztu zuen egunekoa. Marrazki bizidunetan jatekoaren usainera joaten da ba Yogi hartza erdi hegana? Ba halaxe joan nintzen ni bere atzetik, botatzen zuen kea arnasteko. Orain saihestu egiten ditut halako egoerak. Nolanahi ere, nire ideia erretzeari lagatzea da. Ezin dizut esan %100ean lortuko dudarik, baina nire asmoa hori da. Denbora gutxi daramat laga dudala esateko. Bi-hiru urte barru esango dizut, baina hori bai, lortuta ere, beti izango naiz erretzaile izandakoa.

Erretzaile zinel harrapatu zintuen Tabakoaren Legeak. Nola hartu zenuen?

Begira, gauza bat esango dizut. Gutxi erretzen zuena izorratuko zuen lege horrek, baina nire antzera asko erretzen zutenek berdin-berdin jarraitu zuten erretzen. Garestitzen dutela tabakoa? Menpekotasuna baldin baduzu, berdin zaizu. Ahal duzun bitartean erosten jarraituko duzu.

Anbulategian jaso duzu laguntza. Zer balorazio egiten duzu egiten ari diren lanaz?

Oso ona. Agoteren laguntzarekin ari naiz ni, eta oso gustura. Nirekin oso malguta izan da, eta aldi berean, oso gogorra, ezin duela beste modu batera izan. Taldeko terapiak ere badaude, baina nik ez ditut ezagutzen.

Ez dakit zure nerabezaroan zer izango zen, baina gaur tabakoaren kontrako mezuen bonbardeoa handia da. Hala ere, sendagileak ohartarazten dute gero eta gazteago hasten dela jendea. Zer esango zenieke?

Ez erretzeko. Ez erretzeko eta ez edateko. Tontakeri bat dela, min handia egiten duela eta alferreko gastu ekonomiko handia dela. Tabako paketeak 4 eurotik gora balio ditu, baina jo dezagun 4 euro direla eta nire antzera egunean bi pakete oso erretzen dituzula. Hori zortzi euroko gastua da eguneko; urtean 2.920 euro. Hori bera ere nahikoa arrazoiz izan daiteke ekonomikoki justuan dabilen batentzako.

Erretzaileei sarri entzun diegu ez dagoela erretzaile izan dena baino lagun txarragorik. Zer diozu?

Egia da hori. Momentuz ez naiz egoera horretara iritsi, baina hori horrela dela egiaztatu dut neuk ere. Baliteke gero neu izatea hemen txarrena. Badakizu, baina, zergatik den hori? Zergatik jokatzen duten horren zakar erretzaile izandakoek? Bada, euren burua salbatzeko. Erretzaile izan denak beti duela joausteko beldurra eta traba egiten diodako inguruan tentazioa izateak.

Erretzeari lagatzeko laguntza, Elgoibarko anbulategian



Jose Antonio Agote
SENDAGILEA

Erretzeari laga nahi eta ezinean dabilenak Elgoibarko anbulategian eska dezake laguntza. Jose Antonio Agote erizaina da, eta hark eman dizkigu azalpen guztiak. Banakako laguntza eskaintzen du berak. Horretarako, nahikoa da berekin kontsulta ordua eskatzea. Lehenengo eta behin, coximetroaren proba egiten die berarengana joaten diren guztiei, biriketan zenbat karbono monoxido duten neurtzeko. Horren arabera prestatzen ditu gero terapia saioak, baina lehenengo egunetik bertatik erretzaileak saiatu behar du ohiturak aldatu eta eguneko lehen zigarroa geroago erretzen. "Jaiki orduko pizten dute askok zigarroa, eta lortzen badute ohitura hori aldatzea, errazagoa egingo zaie egunean erretzen duten zigarro kopurua jaistea", dio Agotek. Bi aukera dituzte erretzaileek: aukeratu dezakete botikarik hartu gabe saiatzea tabakoa uzten edo botikekin lagunduta egitea. Hiru bat astetako prozesua izaten da. Behin hirurak aste horiek pasatakoan, erretzaileak erretzeari lagatzeko egun bat jartzen du sendagilearekin batera.

Talde terapiak

Banako laguntzaz gain, talde terapiak ere izaten dira Elgoibarko anbulategian. Maria Lombardero sendagileak zuzentzen ditu saio horiek. Bost asteokoak izaten dira normalean, eta 10-15 laguneko taldeak izaten dira. Orain ari direnak lau bat aste daramatzate elkarrekin lanean. "Komeni izaten da terapian hasi eta bukatu bitartean oporraldi luzerik ez izatea. Horregatik, iraila aldera arte ez dugu beste talderik sortuko", zehaztu du horren harira Agotek.



Giza katera deitzeko Elgoibarren martxoan atera zuten talde argazkia.

Dena prest dago ekainaren 8an Durango eta Iruñea eskuz esku batuko dituen giza katerako. Debabarreneko herriei, tartean Elgoibarri eta Mendarori, Bergarara joatea egokitu zaie, eta ikusita egun horretan jendetza handia mugituko dela, inguruko herri-batzordeek autobus zerbitzua ere jarri dute Bergarara joateko. Izan ere, Bergara da ibilbide osoan egongo diren bost gune nagusietako bat, eta gainera, Pentekostez jaiak ere badira han. Egun handirako motorrak bero mantentze aldera, hainbat ekintza antolatu dituzte biharko Elgoibarren.

Ainara Argoitia

Metroak, kamisetak eta zapiak eskuratzeko aukera badago oraindik. Mendaron mahaia jarriko dute gaur plazan, 18:30etik aurrera, eta Elgoibarren goiz osoko egitaraua antolatu dute biharko, giza katea osatzeko eguna gainean dugula gogorarazteko. Kalegoen plazan mahaia jarriko dute eguerdian, metroak eta kamisetak saltzeko, eta horren bueltan hainbat ekintza egingo dituzte. Hona hemen biharko egitaraua:

- 12:00 Salmenta mahaia Kalegoen plazan, eta pinak egiteko aukera.
- 12:30 Burutxiki handiak eta txorizo-pintxoak, Kalegoen plazan.
- 13:30: Giza katea Kalegoen plazatik behera, trikitalariek lagunduta.
- 14:00: Agurra, kantu eta bertsoekin.

SALDUTAKO METROAK:

- Mendaro: 210
- Elgoibar: 475



EGI egunean Kalegoen plazan atera zuten argazkia.

EKAINAREN 8RAKO OHARRAK

- Durangotik Iruñearako bidean bost gune nagusi izango dira, eta horietako bat Bergarako izango da.
- Autobusek lehenetsun osoa izango dute. Antolakuntza nagusitik ohartarazi dute autoz joan nahi dutenek 10:00etarako Bergaran egon beharko dutela eta autoentzako ez dagoela aparkaleku jakirik aurreikusita, beraz nork bere lekua topatu beharko duela Bergara kanpoaldean, erdigune guztia itxita egongo baita.
- 11:00etarako bakoitza dagokion lekura inguratu behar da.
- Giza katea errepidearen ezker aldean osatuko da, Durangotik Iruñearako norabidean.
- Giza kateari soinu ozen batekin emango diote hasiera eta amaiera.
- Segurtasun arauak errespetatzeko direla gogorarazi dute. Antolakuntzakoak behar bezala identifikatuta egongo dira.
- Zaindu ingurua: nork bere zaborrak bildu eta eramateko eskatu dute.
- Ura eta edatekoa etxetik eramatea aholkatu dute. Adinekoen kasuan, aulkia eramateko ere ondo legoke. Elgoibarkoen kilometroan petrila dago eserita egon ahal izateko, baina Mendarokoen kilometroan hori ere ez.
- Etxeko animaliak daramatzenean lotuta eraman beharko dituzte.
- Elgoibari eta Mendarori dagozkien kilometroetan komunak egongo dira, Debabarreneko Gure Esku Dago batzordekoen ekimenez.

ELGOIBARKO BATZORDEAK EMANDAKO JAKINGARRIAK

- **Kilometroa:** Elgoibari 32. kilometroa osatzea dagokio, Soraluze-ekin batera. Kilometro horrek Bergara erdiko autobus geltokian du erdigunea, eta handik Arrasaterantz izango du erdia, eta beste er-

dia, puntu horretatik bertatik Antzuolarantz.

- **Autobus zerbitzua:** Elgoibartik 9:15ean irten- go da autobusa, Madalako parketik. Bergaratik itzultzeko, berriz, bi aukera izango dira: 13:30ean eta 20:00etan. 3 urte arteko umeak (3 urtekoak barne) gurasoen altzoan joan daitezke, eta beraz, ez dute ordaindu beharrik izango. Gurasoren batek nahiko balu umeak bere eserlekua izatea, orduan bai, orduan ordaindu egin beharko luke. Autobuseko txartelak 5 euro balio du, eta autobusean bertan ordaindu beharko da.

MENDAROKO BATZORDEAK EMANDAKO JAKINGARRIAK

- **Kilometroa:** Mendarori 33. kilometroa osatzea dagokio, Deba eta Mutrikurekin batera. Kilometro hori Bergara hegoaldeko irteeran dago, Bergarako azkeneko etxebizitzaren pare aldean hasi eta Antzuolarako errepide zaharra hasten den ingurura. Kilometroa hasten den lekutik gertu taberna bat ere badago, baina goseak eta egarriak estu hartu ez ditzan, goizerako jana eta edana etxetik eramatea aholkatu diete Mendaroko batzordekoek metroak erosi ditzutenei.
- **Autobus zerbitzua:** Mendarotik 9:00etan irtengo dira autobusak, trenbide ondoko geltokitik. Autobuserako txartelak 6 euroan salgai jarri dituzte Morroskillon, Txirristakan, Coviranen eta Aitz Beltzen. 3 urte arteko umeak (3 urtekoak barne) gurasoen altzoan joan daitezke, eta beraz, ez dute ordaindu beharrik izango. Gurasoren batek nahiko balu umeak bere eserlekua izatea, orduan bai, orduan ordaindu egin beharko luke. Bueltarako bi ordutegi izango dira aukeran: 14:00etan, eta 19:00etan. Dagoeneko zein ordutegitako nahiago duen herritarri autobus txartela erosten duenean zehazteko eskatu diote antolatzaileek.

BERGARAKO EGITARAUA

- 9:30-10:30 Autobusen iritsiera.
- 12:00-12:30 Giza katea.
- 12:30-13:30 Giza katea amaitutakoan, Debagoienean giza katea osatu duten talde guztiak elkarrekin itzuliko dira Bergarara.
- 13:30-14:30 Ekitaldi berezia Herriko Plazan, debagoiendarrekin eta bailaratik joandako guztiekin.
- Eguerditik aurrera bi gune nagusi izango dira: haur eta familientzat bat, eta gazteen- zat bestea.

1. Txosna gunea (Bideberrin)

Ume eta familientzako gunea izango da. Jateko gunea egongo da bertan. Batetik, txosna batean ogitartekoak eta mokadutxoak egongo dira; eta bestetik,

mahaiak eta aulkiak, etxetik janaria ekar- tzen dutenek ere bertan egoteko aukera izan dezaten. Estalitako gunea izango da, eta komunak ere egongo dira.

UME ETA FAMILIA GUNeko EGITARAUA:

- 16:00 Irrien Lagunak.
- 17:30 Herrixa dantzan erromeria.
- Puzgarriak, egun guztian zehar.
- Apar festa, pailazoan aurretik eta ondoren.

2. Herriko Plaza:

Eszenatoki handia han egongo da, eta gazteen gunea izango da. Herriko Plazatik hurbil dagoen Munibe plazan jatekoa egon- go da, *catering* zerbitzu baten eskutik.

Euria eginez gero, jateko gunea Seminarioan jarriko dute. Komunak egon- go dira.

GAZTEENTZAKO EGITARAUA:

- 15:30etik aurrera: Gaur egun gazteen artean erreferente diren musika taldeen kontzertuak: Gose eta EsneBeltza. Horiez gain, eta kontuan izanik Bergaran Pentekoste jaiak ospatzen ariko direla, Bergarako jai- tako egitarauan honako ekintza hauek aurreikusten dira egun horretarako:
- 17:30-19:00 XXXVII. Euskadiko Dantza Askatuko Txapelketa, 16 urtez azpiko biko- teentzat.
- 18:30-20:00 Euskal Herriko Errekortado- re Txapelketa, zezen plazan.



MAITE MAIORA

KORRIKALARIA

Itxaropen handia zuten jarrita askok berarengan, eta ez du hutsik egin. Hirugarren egin du Zegama-Aizkorrin, Stevie Kremer eta Elisa Descoren atzetik, eta sei minutuan ondu du iazko bere denbora. Akituta, baina pozik agertu da hitzordura Maite Maiora (Mendaro, 1980), Zegama-Aizkorri jokatu biharamunean. Gaur ere ondoan du losu Juaristi, senarra eta laguntzaile nekazina.

Ainara Argoitia

“Zegama-Aizkorrikoa, inoiz baino gehiago, talde-lanaren emaitza izan da”

Zorionak, Maite. Nola zaude atzokoa eta gero?

Hunkituta. Emozio asko izan dira egun bakar baterako, eta oraindik ez dut astirik izan lasai hartzeko, baina nahiko nuke lehenbailehen liburua ixtea, euforia horretan ez itotzeko. Zegama-Aizkorriren pareko lasterketa gehiagotan parte hartu dut, baina honek badu zerbait berezia. Atzokoa ikaragarria izan zen. Talde handi bat izan nuen niri laguntzen, losuz gain. Bederatzi laguneko koadrila handi bat izan nuen bueltan, eta hain zen handia nigan jarri zuten konfiantza, hain zen handia haiek eta beste askok ibilbide osoan zehar agertu zidaten babesa, atzokoa sekula ez dudala ahaztuko. Neuk egin nuen korrika, baina atzoko lorpena, inoiz baino gehiago, talde-lanaren emaitza izan zen. Helmugara iritsi eta denak etorri zitzaizkidan burura; kostatu zait lo egitea ere.

Bai? Pentsatzen nuen lo egin ezina bezperako kontua izaten zela gehiago.

Nire kasuan, ez. Kontrakoa: goizean lo gelditzeko beldurrez egoten naiz eta bi iratzargailu jartzen ditut badaezpada. Hori bai, gau guztia korrika pasatzen dut ametsetan. Transvulcanian, Luis Alberto Hernandez neukan ondoko gelan eta ni baino aurretik esnatzen bazen atea jartzeko ere eskatu nion, pentsa! Munduko txapelketako proba bat jokatu bezperan baino okerrago egoten naiz, hala ere, herri mailako bat jokatu bezperan. Mendarokoan, adibidez, askoz okerrago pasatu nuen, ezin nuela hutsik egin sentitzen nuelako.

Transvulcanian bigarren egitetik zentozen eta bistan da ilusioa piztu duzula inguruan. Zegaman ere nabari zen atzo.

Baliteke, baina nik uste dut ilusio hori ez dudala nik sortu. Lagunen kontua izan da hori. Nik neure buruan baino konfiantza handiagoa zuten haiek nigan. Denek ikusten ninduten aurrean, eta neuk ere nahi nuen sinetsi, baina aldi berean kontziente nintzen askok uste zutena

baino zailago neukala. Korrika egitea bakarkako kirola dela esango dute, baina atzo garbi gelditu zen hemen ere talde-lanak ematen dituela emaitzak. Joan zen astera arte nik ez nuen jakin losuk horrenbeste lagun mobilizatu zituenik niri laguntzeko, eta bihotzez eskertu nahi diet haiei nigatik egin dutena. Julen Azpiazu, Ioritz Konde, Arkaitz Iureta, Arantzazu Perez de Arenaza, Andoni Iriondo *Kuku*, Ander eta Gotzon Zulaika, Joanes Goitisoló eta Manolo Ramos. Hau zuena ere bada.

Noiz ikusi zenuen zure burua podiumean?

Azkeneko hogeit metroetan. Podiumean egoteko aukera nuela pare bat kilometro falta nituenean konturatu nintzen. Emilie Forsbergekin laugarren postuagatik borrokan nentorren, baina 40. kilometroan, hirugarren zihona [Kasie Enman] atzean lagatzea lortu genuen, eta orduan bai ikusi nintzela aukerarekin. 'Maite, orain dena eman behar duzu. Ondoa izan dituzunengatik egin behar duzu, losugatik, lagunengatik, Otzaurten egon direnenengatik, Andraitzen aupadaka hartu zaituztenengatik, etxeogatik...', esaten nion neure buruari. Iaz, Europako txapelketan laugarren gelditu nintzen eta banekien laugarren egitea zein gogorra egiten den. Bizitza ez da Zegaman amaitzen, baina banekien ezin nuela aukera hori alde egiten laga, ez dakidalako beste noiz-bait iritsiko naizen horraino, oso zaila delako horrenbeste gauza horren ondo irteeta. Neguan krosetan ere ibili naiz, eta badakit zer den bi-hiru kilometrotan agonizatze hori, eta prest nengoen horretarako. Azkenean, helmuga baino 400 metro aurretik-edo, lortu nuen Emilieregangatik askatzea, eta egurrean egin nuen azkena.

Iritsiera ezin politagoa izan zen. Iñigo Lariz lagunarekin batera sartu zinen helmugan. Zer izan zen zuretzat hori?

Ikaragarria. Emilieregangatik askatu eta Iñigo ikusi nuen. Jendea 'Maite, Maite' diharka hasi zen, eta Iñigok atzera begiratu eta ikusi ninduenean, erritmoa azkartu zuen ni lasaitu ez nedin. Helmuga aurrean nuela, atzera begiratu, eta Emilie ikusi ez nuenean... buff! itzela izan zen, eta Iñigorekin helmugaratzea, mundiala.

Zegama-Aizkorriren aurkezpenean, Aitor Elduaien esatariak munduko onenen izenak zerrendatu eta zera galdetu zizun: gertu edo oraindik urrats bat gorago ikusten ote zenituen beste horiek. Non claude orain?

Kontziente naiz dena ondo irteenez gero gai naizela estu hartzeko, baina aldi berean badakit horietako batzuek profesionalki dedikatzen direla honetara, eta ni beste maila batean nagoela, baina bai, garai batean baino gertuago ikusten ditut.

Korrikalari profesionala izateko eskaintzarik iritsi zaizu?

Ez dut nahi ere. Profesional egitea afizioa lanbide bihurtzea izango litzateke, eta ez dut hori nahi. Ona izan behar hori, beti podiumean egon behar hori, ez zait gustatzen; ezingo nuke eraman.

Transvulcanian bigarren, Zegama-Aizkorri hirugarren... goia jo duzu?

Ez, ez. Nire aurretik beste bi iritsi ziren Zegamara ere. Bigarren egin zuena aurreratu ere egin nuen momentu batean eta pentsatu nuen lehertuko zela, baina ez, minutu bateko alde atera zidan. Hor ikusten da zer nolako maila dagoen. Emakumezkoen lasterketan, gainera, azkenera jokatzen da podiuma. Ez dugu mutilak bezain azkar etsitzen.

Haserretuko zaizkizu gizonetakoak.

Egia da, baina. Gizonetakoak hasieran eman dute ikuskizuna, eta guk

bukaera aldera, erditik atzera. Neskak askoz hotzagoak gara, eta sakrifiziorako gaitasun handiagoa daukagu. Gu mutilak aurreratu eta aurreratu ibiltzen gara. Hasierako kilometroetan hogei minutuko alde atera diguten horiek ere atzean lagatzen ditugu, aurrera egin ahala. Fisikoki ez gaude horren prestatuta eta guk normalean lehenengo mutilak baino ordubete gehiago behar izaten dugu bukatzeko, beraz derrigortuta gaude erritmoa zaintzera. Maratoiak 42 kilometro ditu denontzat, baina guk ordubete gehiagorik egin behar dugu korrika, eta desabantaila horri nolabait egin behar diogu aurre! Zegama-Aizkorri, adibidez, lepoa jokatuko nuke Sancti Spiritu [19. kilometroa] aurreratu ninduten mutil guztiak nire atzetik iritsi zirela helmugara.

Lana egiten duzu, eta zure entrenamendu saioak ez dira ordubeteoak. Astirik baduzu beste ezertarako?

Bai, baina orain ez dut besterik ikusten. Ilusionatuta nago, eta hurrengo Espainiako Kopa ikusten dut nik orain. Aspertuko naiz egunen batean edo gorputzak esango dit 'nahikoa da', baina orain hauxe da nire mundua. Koadrilako *whatsapp*-a ere badaukagu, eta 19:00etan tabernan *bokata* bat jateko gelditu direla irakurtzen dudanean pena ere ematen dit nik infusioa besterik hartu

ezinak, baina nik aukeratu dut hau. Gainera, nire bizimodu berdina egiten duten lagun onak ere badituzte, eta losu ere hor daukat. Munduko txapelketara joango naiz laster, eta esan diet haiei ere: ni banoa, baina losu nirekin dator.

Zein lagungarri zaizu losu ondoan izatea?

Handia. Ezin duenetan etorri ez da ezer pasatzen, baina egia da oso lagungarri zaidala. Nire aldean pertsona irekia da losu, eta atzerriko korrikalarietara gaudenean ikaragarri laguntzen dit taldeko sentitzen, taldean sartzen. Zapatuan, Zegama-Aizkorri jokatu bezperan, harrituta laga ninduen. Atzerriko

korrikalarietara geunden ostatuan eta Zegamara azken entrenamendua egitera joan nintzenean gosaltzen laga nuen losu. Itzuli nintzen ordubete geroago eta mezu bat neukan: 'Maite, herbehereetakoekin joan naiz entrenatzera'. Nik ez nuen sekula egingo. Hori niretzat oso lagungarria da, eta aldi berean, pozgarria, ikusten dudalako nirekin dagoela, baina bera ere oso gustura dagoela saltsan. Ezin nuen sinetsi, hori bai. Lau orduren bueltan ibiltzen direnak dira besteak, eta ezin nuen imaginatu losu haiekin, minutuko 190 pultsaziotara korrika eta ingelesez berbetan.

Eguraldia lagun izan ez arren, sekulako markak izan dira aurten. 2008tik hona ez zen errekorrik ondu. Aurten lortu da. Zer gertatu da?

Iaz, 4:57:42an egin nuen. Nik banekien denbora horren bueltan egin nezakeela, baina 4:51:47an egin dut, hein handi batean Emilierekin izandako borrokagatik. Lehia hori izan ez bagenuen, denbora txarragoa egingo nuen. Maila handiko korrikalarietara egoteak egiten du hori. Etor Mendia entrenatzaileak ere esan zidan atzo Andraitzen behera hil ala bizi jaitsi nintzela, eroen pare. Oraindik ez dakit nola ez nuen minik hartu! [57 minutuan egin zuen Andraitzetik beherako hamabi kilometroko bidea. Denbora hori bukaerara 4:30:00etik behera egin duten gizonetakoak bakarrik ontzen dute].

IOSU JUARISTI

Maite Maioraren lorpenak bereak dira, baina Iosu Juaristiren itzala nabari da denetan. Zegama-Aizkorri lasterketan ere han zen, Maitek behar zuenean laguntzeko prest.

Ikusi zaitugu gelak hartuta, aldatzeko erropekin, meteorologo lanetan, argazki kamera lepoan duzula... Maiteren itzala bihurtu zara; beti bigarren plano batean.

Sherpa esaten dit Maitek, eta Norvegiarrek-eta *supporter* hitza erabiltzen dute. Ni neu ere publikoaren parte naiz, baina bai, ohiko publikoarentzat ezkutuan nago. Maiteren laguntzailea naiz, eta saiatzen naiz laguntza eskatzen didaten gainerakoei ere laguntzen, beti ere Maiter laguntzea oztopatzen ez didaten neurrian.

Entrenamentuetan ere saiatzen naiz ahal dudanean ondoan egoten. Garbi dago fisikoki ez naizela ezer Maiteren ondoan, eta ezin diodala nahita ere jarraitu, baina aldapa behera-eta saiatzen naiz eskatzen didanean bere ondoan joaten. Lasterketa baino egun batzuk aurretik jartzen naiz eguraldiari begira, zer beharko duen aurreikusteko. Eliteko korrikalari guztiak egiten dute *briefing* edo batzar teknikoa lasterketa bezperan, eta guk gure *mini briefing*-a egiten dugu, geure modura. La Sportiva taldearekin dihardu Maitek, eta erropa eta oinetako aukera zabala du, baina bilera horietan erabakitzen dugu zer beharko duen. Zegama-Aizkorriako, adibidez, zapatila batzuei tako barruko koskaxoa kentzen jardun dut, takoa bera sakonagoa egiteko, lurrari hobeto heldu diezaion zapatilak. Behar duenean laguntzeko nago ni. Maiteren bikotekidea ere banaiz, eta badakit jende batek pentsatuko duela gehiegi estutzen dudala eta auskalo zer. Eliteko korrikalari guztiak dute ondoan norbait, baina pertsona hori bikotekidea izatea ez dago horren ondo ikusita, eta batzuetan ematen dit zer pentsatua ere.

Zegama-Aizkorriko egunak nola bizi dituzu?

Zegama-Aizkorri laga zion jaia izateari niretzat. Kronometroa, argazki kamera... Serio hartzen dut, beragatik. Sekulako esfortzua egiten du, eta zer gutxiago egin genezake guk! Atzo, adibidez, ezin izan nuen nahi duen guztian lagundu. Nire asmoa lau lekutan ikustea zen: irteeran, Ultzaman, Sancti Spiritun eta helmugan, baina irteera ikusi eta Otzaurten gelditu nintzen, ez atzera ez aurrera, Sancti Spiritura joan ezinik. Helmugara itzuli nintzen, eta behintzat ikusi nuen sartzen. Otzaurten ikustea ez zait batere gustatzen, ez delako anoa-puntua, eta beraz, ezin diozulako korrikalariari lagundu. Ultzamara joan nahi nuen, ura emateko, eta ezin!. Huskeria bat ematen du, baina ez da.

Zergatik?

Maite joan daiteke podiumean sartzeko aukerarekin, baina lehenengo-etakoa izanda ere, lasterketan beti joango da gizonezko talde handi batek inguratuta, eta jakina, anoa-postuetan gelditzea erabakiko balu –eta ezinbestez gelditu beharko luke nonbaiten–, denbora asko galduko luke, berarekin batera doazen gizon guzti horiek ez dutelako euren marka ontzea besterik jokoan eta denak geldituko direlako anoa postuetan, traba egiten. Aurre-aurrean doazen emakumezkoek badute lehenengo doazen gizonezkoek ez duten oztopo hori gainditu beharra.

Eta hori saihesteko Zegama-Aizkorri taldea sortu zenuen.

Bai. Nik ez daukat lotsarik laguntza eskatzeko, ondo ezagutzen nauzu zuk ere, eta talde bat sortu nuen *whatsapp*-ean. Bederatzi lagun oni



esker lortu genuen Maitek denborarik ez galtzea anoa-postuetan gelditu beharragatik. [Zegama-Aizkorriin dauden hamahiru anoa postutatik bederatzitan lagun bana zeukan Maitek, losuk emandako aginduak betetzeko]. Ura edateko gelditu beharragatik gutxien-gutxienez hamar bat segundo galduko litzuke Maitek geldialdi bakoitzeko. Hamar geldialdi eginez gero, minutu eta 40 segundu da hori; asko aurreko postueta dabilzanentzat. Beraz, eskertzekoa da haiek egindako lana, are gehiago kontuan izanda horietako batzuei zulo-zuloetan egotea tokatu zitzaie, berez Zegama-Aizkorri lasterketa ikustera doan bat sekula joango ez litzatekeen lekuetan, alegia.

Eta zu moduko *supporter* batek zelan bizi ditu lasterketa aurreko egunak?

Urduritasunez eta kezka. Bere arabera ere izaten da asko. Ondo ikusten badut, lasaitzen naiz, eta urduri edo baxu igartzen badut, saiatzen naiz antzerkia egin eta lasai itxuran agertzen, bera lasaitzeko.

Atzoko eguna nola bizi izan zenuen?

Teorian helmugan behar lukeen denbora baino hamar minutu aurretik Manoloren [Ramos] *whatsapp*-a jaso nuen eta hondoa jo nuen. Seigarren zetorrela zioen eta bareak-edo estu hartu zuela. Ama neukan parean eta keinu batez adierazi nion bukatu zela, gaizki zetorrela. Eta handik 30 bat segundura, oraindik telefonoa eskuan nuela, Maite hirugarren zetorrela esan zuen *speaker*ak bozgorailutik. Ez nekien zer egin: txaloka hartu, argazkiak egin, negarrez hasi...

Eta zer egin zenuen?

Argazkiak atera. jajaja. Lana, lana da.

Apirilean...

JAIOTAKOAK



Malen Agirre Ansola
Apirilak 4
Jesus eta Ainhoa



Maitane Guano Plasencia
Apirilak 3
Virgilio eta Marcia



Duna Azpillaga Irazabal-belitia Apirilak 24
Xabi eta Itziar



Ibon Zubiaurre Ortueta
Apirilak 15
Joxu eta Ibona



Eneko Arriola Ibarzabal
Apirilak 6
Igor eta Amaia



Eñaut Ruiz Eguren
Apirilak 6
Asier eta Eider

Mohamed Nassim Rahho
Apirilak 4
Mohamed eta Basma

Ibon Eugi Toledano
Apirilak 21
Ioseba eta Nuria

Amal Yaagoubi
Apirilak 29
Ismail eta Bouchra

EZKONDUTAKOAK

- Chadli Ouahjoudou eta Laura Vallejo Apirilak 25

HILDAKOAK

- Rosario Zulaika Osa • 89 urte • Apirilak 3
- Julia Gorrotategi Osoro • 90 urte • Apirilak 3
- Isidro Astigarraga Arozena • 79 urte • Apirilak 13
- Agustina Bastarrika Larrañaga • 86 urte • Apirilak 20
- Juan Mari Osoro Agirre 'Katxo' • 66 urte • Apirilak 22
- Juan Kruz Izagirre Maiztegi • 65 urte • Apirilak 27

ETXE BERRIA

Hileta zerbitzua OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56 / (Sakelekoa) 635 756 295

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira
943 744 112 telefonora edo bidali e-postaz barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.



II. URTEURRENA

SABIN INTXAURRAGA REKALDE

2012ko maiatzaren 26an hil zen, 78 urte zituela.

Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, ekainak 7,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.

Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik.



IÑIGO ARRIOLA

S.D. Eibarko jokalaria ohia

Handia egin du S.D. Eibar futbol taldeak. Bigarren A Mailara igo berri eta ligako aurrekontu txikienarekin (Hiru milioi euro), Lehen Mailara igo da. Taldea barrutik ezagutzen du Iñigo Arriola elgoibartarrak, bederatzik urtean izan zen-eta Eibarko jokalaria eta beste sei urtean, etapa ezberdinetan, talde teknikoko kide.

“Betiko baloreak galdu gabe lortu du Eibarrek ‘Primerako’ taldea izatea”

Lehen Mailara igotzea lortu du S.D. Eibarrek. Zer sentitzen duzu?

Oraindik ez dut guztiz barneratu Eibar Lehen Mailan egongo denik. Ono ezagutzen dut Bigarren Maila eta dauzkan zailtasunak. Taldeen aurrekontuak ere ezagutzen ditut, eta horiek denak gaineratik pasatzea, Eibarrek egin duen moduan aurrekontu txikienarekin, gauza handia da. la ezinezkoa zirudien arren, pasatu egin da, eta momentu gozo hau bizitzea tokatzen da orain.

Zer edo zein etorri zaizu burura?

Eibarren ezagutu ditudan hainbat lagun: Garmendia, Luluaga, Rodriguez... 22 urterekin Eibarrera ailegatu nintzenean Eibar zer den erakutsi zidaten, eta gainera, katea eten ez zedin, atzetik etorriko zirenei Eibarko sentimendu hori transmititu behar niela irakatsi zidaten. Horien eta Eibartik pasatu diren beste jokalaria askoren espiritua bizirik dago igoera lortu duen talde honetan. Iturri horretatik edan baitzuten Gaizka Garitano entrenatzaileak, edo taldean jarraitzen duten Txema Añibarrrok edo Arruabarrenak, besteak beste. Horiek taldean dauden bitartean guk bizi izan genuen Eibar sentimenduak bizirik jarraituko du. Gauza on bat dauka Eibarrek, kanpotik etorri diren jokalaria bertakotzen asmatu duela. Ondo hartzen dituzte guztiak, baina hemen gauzak nola egiten ditugun azaltzen zaie. Dinamika horretan sartzen joaten dira jokalaria, eta azkenean denek ematen dute hemengoak direla.

Zure ustez zein izan dira igoera lortzeko gakoak?

Zaila da arrazoi bakarra nabarmentzea, gauza eta alderdi askok bat egin dute-eta saski berean. Taldearen eta entrenatzailearen maila ona



eta liga hasiera ona nabarmenduko nitzuke nik. Uste baino goizago lortu zuten maila mantentzearen helburua, eta ordutik askeago aritu da taldea. Era berean, talde handiek dauzkaten arazo ekonomikoek mesede egin diote Eibarri, futbola berdindu egin delako. Talde aberatsen eta pobreen arteko aldea murriztu denez, Eibarrek aukera handiagoak ditu baldintza horietan lehiatzeko. Horrek ez du esan nahi, baina, futbolaren mundua justua denik, inondik inora. Bizitzaren isla da futbola eta hemen ere injustiziak dira nagusi. Zor handienak dituzten futbol taldeek laguntzak jasotzen jarraitzen dute, eta aldiz, Eibarrek arazoak izango ditu behar duen kapital-gehikuntza osatzeko [1,7 milioi euro lortu behar dituzte mailaz igo ahal izateko].

Gaizka Garitano laguna duzu. Zer daukazu esateko aulkian egin duen lanaz?

Aspalditik ezagutzen dut Gaizka. Jokalari beteteranoa nintzela etorri zen Eibarrera. Lider berba ez dut gogoko, baina berezia zen entrenatzeko eta jokatzeko moduan. Gaztea izan arren, arduratsua zen oso. Eibarren baloreak ondo ezagutzen zituen orduan, eta mantendu egin dituela esango nuke. Bere neurria eginiko taldea da Eibar, hasi laguntzaile-enganetik eta jokalarietara arte. Bere meritua da.

Nola ikusten duzu Eibar Lehenengo Mailan?

Ikuspuntua aldatu beharko dutela uste dut. Igandero-igandero Eibar baino txarragoak diren hiru talde atzean lagatzen saiatu beharko dute. Halere, lortutakoaz gozatzea tokatzen da orain, sufritzeko garaiak helduko dira.

Lauko Elgoibar eskubaloi taldeak irabazi du Gipuzkoako Kopa

Igor Lizarraldek entrenatzaile izateari lagako dio



Sanlo eskubaloi taldeko senior emakumezkoen taldeak, Lauko Elgoibarrek, irabazi du Gipuzkoako Kopako txapelketa. Zumaian jokatu zuten finalean Donostiako Bera-Bera taldea hartu zuten mendean (33-16). Denboraldiko azken partida izan zen Laukorentzat, eta baita Igor Lizarralde entrenatzailearentzat ere, kargua lagako duela jakinarazi baitio Sanlori. "Eskerrak eman nahi dizkizuet azkenengo hiru urte hauetan nirekin egon zareten jokalarri guztiei. Ohore handia izan da zuekin lan egitea, eta baita lortu ditugun gauza guztiak elkarrekin ospatzea ere. Era berean, ez nituzke ahaztu nahi Lorea, Josu, Iban, Ales, zuzendaritza talde zoragarria osatzen duten kideak, eta nola ez, guraso guztiak, hor izan ditugulako, partida guztietan babesa ematen", adierazi du Lizarralde agurrean.

Urrezko hiru domina Mintxetako atletentzat Euskadiko Atletismo Txapelketan



Mintxeta Atletismo Taldeko hiru ordezkari urrezko domina bana eskuratu dute Eskolarteko Euskadiko Atletismo Txapelketan. Mendizorrotzako atletismo pistan, Gasteizen, jokatu zuten txapelketa, maiatzaren 24an. Johan Rodriguezek pisu jaurtiketan lortu zuen urrea, 13 metro eta 45 zentrimetroko jaurtiketa bati esker. Martin Hernandezek jabalina jaurtiketa proba irabazi zuen, 36 metro eta 82 zentimetroko jaurtiketa batekin. Azkenik, Eider Igleasiasek 150 metroko lasterketa jokatu zuen eta bera izan zen azkarrena (19:93). Igleasiasek gainera, 4x80 metroko erreleboetako proban hartu zuen parte Gipuzkoako selekzioarekin, eta urrezko domina eskuratu zuten.

Bailarako Futbol 7 txapelketa asteburuan hasiko da

Larunbat honetan, maiatzaren 31n, hasiko da Debabarrena Bailarako Futbol 7 Txapelketaren 17. ekinaldia. Bailarako hogeita hamar taldek eman dute izena, eta Mintxetan eta Unben jokatuko dituzte partidak. Finala uztailaren 18an jokatuko dute, Mintxetan.

'Sumando Gehituz' jaia antolatu du CD Debabarrena areto futbol taldeak astebururako

Areto futbola gizarteratzeko asmoz, *Sumando Gehituz* jaia antolatu dute CD Debabarrena taldekoek hirugarren urtez jarraian. Madalako parkean jarritako karparen bueltan zentratuko dute jaia. Aurtengain, klubaren 25. urteurrena dela-eta, 1989tik gaur arteko argazki, albiste eta beste hainbat datuarekin apainduko dute karparen barrualdea. Gaur, 19:00etan, zabalduko dute Maalako karpa. Ekitaldian, klubeko eta Elgoibarko Udaleko agintariek parte hartuko dute. Asteburu osoko egitaraua antolatu dute, hala ere. Tartean, zapatuan, bazkaltzeko elkartuko dira zuzendaritzakoak, jokalarriak, gurasoak eta gertuko lagunak. Bazkalostean talde bakoitzeko jokalarri onenak sarrituko dituzte. Jan-edanaz, gainera, musika eta karaokea izango dira *Sumando Gehituz* jaiko osagai nagusiak.

'Elgoibar bi erroberetan' egitasmoa, ekainaren 8an

Elgoibar bi erroberetan egitasmoa antolatu du Herri Eskolako Kalamua guraso elkarteak, ekainaren 8rako. Iazera lehiakorrik gabeko egitasmoa da, eta antolatzaileek distantzia laburretan bizikleta erabiltzeko ohitura sustatu nahi dute. 10:30ean irtengo dira Kalegoen plazatik, eta Sallobentera egingo dute joan-etorria bizikletaz. Egun horretarako bizikletak puntuan jarri nahi dituztenek datorren astean izango dute aukera, ekainaren 2tik 6ra bitartean, bizikletak konponduko dituzte-eta Lagunak txirrindulari taldeak plaza txikian duen egoitzan, egunero, 18:00etatik 19:30era.

Barazkiekin jateko goxo eta dibertigarriak osatzeko tailerra, bihar

Hileko azken zapatuko azoka egingo dute bihar Elgoibarren

Hileko azken zapatua da bihar, eta ohi legez, azoka egingo da Elgoibarren. 9:00etan zabalduko dute azoka bera, eta bihar, Elgoibarko motoristen elkarteak izango du Kalebarren plazan jarri ohi den txosna kudeatzeko ardura. Herriko baserri eta harategietako produktuekin egindako pintxoak salduko dituzte bertan. Eguerdian, Kale Kantariak ere irtengo dira kantura, eta ordu horretan bertan hasiko dute barazki tailerra ere. Barazkiekin jateko goxo eta dibertigarriak osatzen ikasiko dute haurrek, 12:00etatik 14:00ak bitartean. Eguerditik arratsaldera, berri, ganadu erakusketa egongo da Aita Agirre plazan.

Dantza erakustaldia, bihar, Elgoibarren

Aurreku eta soinu zahar txapelketako dantzariak dantza erakustaldia eskainiko dute bihar Elgoibarren, denboraldiari amaiera biribila emateko. Aurten txapelketetan jardun diren hainbat dantzari parte hartuko dute jaialdian, 10 urtetik 18 urtera bitarteko haur eta gazteek, eta txapelketan dantzatzen dituzten doinu berberak dantzatzeko dituzte. Erakustaldia Kalegoen plazan izango da, 12:30etik aurrera.

Javier Landerasen argazki erakusketa, gaurtik hilaren 14ra arte

Javier Landeras (Bilbo, 1965) argazkilariaren argazki erakusketa zabalduko dute gaur Elgoibarko Kultur Etxean. Erakusketa gelan jarriko dute, eta astelehenezik zaptura egongo da zabalik, 18:30etik 20:30era. Ongarri Argazki Taldeak antolatu du, eta ekainaren 14a arte egongo da bisitatzeko aukera. *Kyoto Rikyu* jarri dio izena Landerasen erakusketari.

Ekainaren 8an ospatuko dute Aiestian Sanmigeldarren eguna

Sanmigeldarren eguna ospatuko dute ekainaren 8an. 11:30ean hasiko dute eguna meza nagusiarekin, eta meza ostekoaren ondoren, 12:30ean, auzotarren arteko esku-pilota partida jokatuko dute. Ondoren, 14:30ean, herri-bazkaria egingo dute, eta bazkalostean Aiestiako Herri Kirol Taldea omenduko dute. Elustondo anai-arrebek jarriko dute musika. Antolatzaleek jakinarazi dute ekainaren 4a artekoa dagoela bazkari-tarako izena emateko. Bazkari txartelak ondorengo leku hauetan jarri dituzte salgai, 30 euroan: Armueta, Ziarda eta Sahatsu harategietan eta Kalamua elkartearen.

Ekainaren 7an ospatuko dute Ikastola Eguna Elgoibarren

Bihar zortzi, ekainaren 7an, Ikastola Eguna ospatuko dute Elgoibarren, eta ohi legez egitarau zabala antolatu du Elgoibar Ikastolak. Hona hemen, puntuz puntu.

- 10:45: Kalegoen plazatik Ikastolara arteko kalejira.
- 11:15-13:30: Umeentzako jolasak. Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatik seigarren mailara artekoak eta DBHko lehenengo eta bigarren mailakoak Altxorraren bila arituko dira, eta olimpiadak ere egingo dituzte. Haur Hezkuntzako laugarren eta bosgarren mailakoentzako jolasak eta tailerrak ere izango dira.
- 11:00-13:30 / 15:00-16:00 Puzgarriak.
- 12:00-18:30: Itsasontziak hondoratzen erraldoia egingo dute, eta antolatzaleek jakinarazi dute oparia asko banatuko dituztela.
- 12:00-14:00: Zumba saioa: Antolatzaleek jakinarazi dute haurtzaindegi zerbitzua egongo dela, gurasoek lasai dantza egin ahal izateko.
- 14:00-16:00 Bazkaria, eta ondoren sari banaketa ekitaldia.
- 16:00-16:15 Enkantea: Mausitxako gazta jarriko dute enkantean. Pisua asmatzen duenak eramango du.
- 16:15-18:30: DJa
- 16:30: Mus txapelketa. Saria: bi lagunentzako afaria Sigma jatetxean.
- 18:30: Agurra.

Mery May & The Muppets bandak kontzertua eskainiko du gaur Kultur Etxeko sotoan

Sinuosek antolatuta, Mery May & The Muppets bandaren kontzertua izango da gaur Elgoibarko kultur etxeko sotoan, 23:00etatik aurrera. Sarrerak 3 euroan salduko dituzte, sotoan bertan. Mery May proiektuaren atzean Arrasateko neska bat dago: Maria Fagan Sagasta (Arrasate, 1989). 2009an hasi zuen musika ibilbidea, gitarra eta ahotsa lagun zituela, eta ordutik bakarkako emanaldiak zein bandarekin egindakoak tartekatatu ditu. Gaur, bandarekin etorriko da. *Dreams* izenekoa izan zen bere aurreneko lana, eta iaz argitaratu zuen bigarren diska: *Rue Matignon*. Azken diska hau lagun musikariekin batera grabatu du, eta bere melodiengatik lilura guztiz alde batera laga gabe, gitarrarekin beste doinu paisaia batera salto egin du. Estiloari dagokionean, ingelesez abesturiko folk erritmoetatik pop giroetara pasatzen da Mery May, baina bere kantuek rock zipriztindua ere badute.

'40 Princibales' dantza ikuskizuna eskainiko dute Josu Mujikaren ikasleek

Ekainaren 12 eta 13an Elgoibarren, eta 20an, Mendaron

Urtero ekaina aldera egin ohi duten legez, dantza-eskolan ikasitakoa jendearean erakusteko aukera izango dute Josu Mujika koreografo elgoibartarren ikasleek. Aurten, *40 Princibales* izena jarri dio Mujikak ikuskizunari, eta 60ko hamarkadatik hasi eta bereziki 90eko hamarkada bukaera aldera arte irrati formula guztietan gehien entzun ziren kantuak dantzatuko dituzte. Elgoibarren, bi saio eskainiko dituzte: ekainaren 12an eta 13an, eta Herriko Antzokian izango dira biak, 22:00etatik aurrera. Ikuskizun horietarako sarrerak Pitxintxu dendan jarri dituzte salgai, 3 euroan. Mendaron, berriz, ekainaren 20an emango dute ikuskizun bera, frontoian. Eibar, Elgoibar eta Mendaroko ikasleek parte hartuko dute bi saioetan; guztira, 140 bat lagunek.



Ekainaren 2an zabalduko da Irri Sarriko irteerarako izena emateko epea

Elgoibarko Izarrako aisialdi taldeak Irri Sarri irteera antolatu du ekainaren 22rako. Irri Sarri duela hilabete inguru Igantzin (Nafarroa) zabaldu zuten abentura parkea da, eta hainbat ekintza egin daitezke han. Lehen Hezkuntzako hirugarren eta seigarren maila bitarteko gaztetxoentzako irteera izango da, egun bakarrekoa, eta izena emateko epea ekainaren 2an zabaldu eta ekainaren 13an itxiko dute. Elgoibarko Izarrak Ubitarten daukan bulegoan edo eta www.elgoibarkoizarra.com helbidearen bitartez eman daiteke izena. Elgoibarko Izarrako bazkideek 17 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 19. Irri Sarri abentura parkeari buruzko informazio gehiagorako: www.irrisarriand.eu.

Elgoibarko musika eskolarako matrikulazio aldia, asteleheneetik aurrera

Astelehenean, ekainaren 2an, zabalduko dute Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika Eskolarako izena emateko epea, eta ekainaren 20an itxi. Ikasle berriak matrikulatu nahi dituztenek asteleheneetik barixakura izango dute aukera, 18:00etatik 20:00etara. Gainerakoek, astelehen eta arteartetan eman beharko dute izena, 10:30etik 12:30era.

Elgoibarko musika eskolako talde finkoen kontzertua, gaur, Herriko Antzokian

Elgoibarko Inazio Bereziartua musika eskolako talde finkoek kontzertua eskainiko dute gaur, 19:00etan, Herriko Antzokian. Hari taldeak, akordeoi taldeak, gazteen bandak, koroa eta rock taldeak eta rock taldeak parte hartuko dute, eta bakoitzak bi-hiruna pieza joko ditu.

'Ahozotasuna eta bertsogintza' egitasmoan ikasitakoa erakutsi dute gaztetxoek egunotan



Aurtengo ikasturtean 285 ikasle aritu dira Elgoibarren ahozotasuna eta bertsogintza lantzeko egitasmoan, eta bertan jardun duten ikasleek bertso-jaialdi bana eskaini zuten astelehenean eta martitzenean Elgoibarko Herriko Antzokian. Bertsozale elkarteak abian jarritako ahozotasuna eta bertsogintza lantzeko egitasmoaren barruan, Elgoibarko 285 ikaslek hartu dute parte aurtengo ikasturtean: Herri Eskolako 4. eta 5. mailetako ikasleek, Elgoibar Ikastolako 5. eta 6. mailetakoeak eta Institutuko DBH2ko ikasleek. Iñaki Gurrutxaga bertsolariak gidatu ditu saioak.

LANA

ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko etxo etxeko lanak egiteko. Geriatria laguntzaile ikasketak ditu. ☎ **646 931 162**
- Emakumea eskaintzen da etxebizitzak, tabernak, elkarte gastronomikoak eta portalak garbitzeko. ☎ **697 702 158**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna moduan ere egingo luke lan. ☎ **631 832 767**
- Neska euskalduna eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. ☎ **617 571 210**
- Emakumea eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Esperientziaduna. Gomendiozko gutuna dauka. ☎ **631 832 767**
- Emakume arduratsua, umeak eta adinekoak zaintzeko prest. Interna moduan ere egingo luke lan. ☎ **675 512 267**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo lituzke, eta interna moduan lan egiteko prest legoke. ☎ **680 808 125**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Interna moduan nahiz orduka egingo luke lan. Geriatria kurtsua dauka eginda. ☎ **632 253 170**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Interna moduan nahiz orduka egingo luke lan. Geriatria kurtsua dauka eginda. ☎ **669 331 385**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Orduka. ☎ **648 826 638**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Orduka. ☎ **636 362 251**

- Gizonezkoa eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **630 764 528**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Interna edo orduka. ☎ **673 199 638**
- Emakumea eskaintzen da ume zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Esperientzia handia. ☎ **616 457 254**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko, sukaldari laguntzaile lanetarako edo garbiketarako. ☎ **697 372 374**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Gazez ere bai. Esperientziaduna. ☎ **672 966 528**
- Emakumea, edozein lan egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **632 882 532**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Arratsalde. ☎ **628 738 472**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **688 901 667 / 943 530 908**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile posturako. ☎ **606 354 982**
- Emakumea, adinekoak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ **626 052 165**
- Emakumea, lan bila. Adinekoak zaintzen esperientzia. Interna edo orduka. ☎ **632 126 668**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Esperientziaduna. ☎ **632 662 947**

ESKAITZA

- Neska gaztea behar da, asteburuetan zerbitzari aritzeko. Elgoibarren bizi eta euskaraz jakitea baloratuko da. Curriculum **Sua** tabernan laga behar da.

ETXEBIZITZAK

- Bi logelako etxea alokatzen dut Madalan. Eguzkitsua, igogailuarekin. ☎ **652 716 724**

- Ganbara-etxebizitza alokatzen dut Pedro Muguruzan. Bi logela, oso argitsua. Bizitzera sartzeko prest. ☎ **652 762 236**
- Emakume batek etxea hartuko luke alokairuan, ahal bada hiru logelatakoa. ☎ **603 237 932**
- Babes ofizialeko etxebizitza salgai Santa Ana kalean. Logela bakarreko estudioa, terraza, garajea eta trastelekuarekin. ☎ **610 729 761 (Arkaitz)**

PARTIKULARRAK

- Lehen Hezkuntzako klase partikularrak emango nituzke udan. DBH mailako ingelesa ere emateko prest. Umeak ere zainduko nituzke. ☎ **659 024 427**

OSPAKIZUNAK

- 1964an jaio eta 50 urte beteko dituzten elgoibartarren bazkaria ekainaren 21ean, Sigma jatetxean. 60 euro sartu behar dira, Laboral Kutxako kontu honetan: 3035 0007 20 0071129002. Informazioa eta argazkiak konpartitzeko: *Elgoibar1964 Quintos@yahoo.es* / Facebook: *elgoibar1964 Quintos*. Antolatzaileek argazki zaharrak eta ez hain zaharrak eskatu dituzte.
- 1949an jaiotakoen bazkaria ekainaren 7an, Sigma jatetxean. 12:30ean argazkia parrokiako arkupean, eta gero luntxa Ibai Ondo jatetxean. 55 euro sartu behar dira La Caixan, maiatzaren 30erako: 2100 4168 75 2100281986.

BESTELAKOAK

- Liburuak oparitu nahiko nituzke. Etori ikustera eta eraman nahi dituzunak. ☎ **683 338 479**



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



30 etxebizitzako komunitate batean bizi naiz, eta 36 plazatako garajea daukagu. Garajeen gunera sartu edo handik irteteko garajerako arrapala erabili behar da ezinbestean. Garajeak dituztenetako seik ez dute etxebizitzarik gure eraikinean, baina portalera sartzeko giltza du-te handik garajeetara jaitsi ahal izateko. Portaleko gastuak ordaindu arazi diezaiekegu horiei ere? Batzar bat baino gehiagotan eskatu diegu, baina ukatu egin dira beti.

Zuen komunitate horretan ez dago garajeetarako oinezkoentzako sarbide zuzenik kaletik bertatik, eta beraz, zuk diotzun moduan, eraikinaren instalazio komunak erabili behar dituzte garajera sartzeko: eskailerak, igogailua edo dena delakoa. Horregatik, derrigortuta daude portaleko gastu komunak ordaintzera, dagokien partean.

Etxe-jabeen batzarrean adostu beharko duzue nola egin, baina gutun bat bidali beharko zeniekete horiei, eta gutunean zehatz-mehatz azaldu egoera zein den eta zeintzuk arrazoigatik exijitzen diezuen portaleko mantenuari dagozkion gastu horiek ordaintzea.

GOMENDIOA: Komunitate guztietan jabeek eskubideak eta betebeharrak dituzte. Eratze Tituluetan es-preski hala jasota dagoelako edo etxe-jabeen batzordeak hala erabaki duelako bakarrik salbuetsi daiteke jabe bat dagozkion betebeharrak betetzetik.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Maialen**, igandean 5 urte handi egingo dituzulako.



• Zorionak, **maixial** maiatzaren 28an 3 urte bete zenituelako. Muxu handi bat guztien partez. Jarraitu horrela, printzesa.




• Zorionak, **Ainhize**, neska handi.



• Zorionak, **Maren**, astelehenean 9 urte beteko dituzulako. Ondo-ondo pasatu eta muxu potolo bat.



• Zorionak, **Olaiz**, gaur 6 urte betetzen dituzulako. Gure bonboitxoari muxu asko etxekoan partez.



• Zorionak, **txapeldun!** asteartean 7 urte egin zenituelako. Etxeko guztien partez muxu handi bat.



• Zorionak, **Jon**, igandean 4 kandela itzaliko ditugu elkarrekin. Patxo handi bat etxekoan partez.



• Zorionak, **June**, etxeko denon eta bereziki Lea eta Malenen partez. Muxu handi bat.



• Bikote eder hau batuta, dozena bat! Zorionak **Arhane** eta **June** beti irribarretsu. Muxu pila bat potxolak.



• Zorionak, **Ramon eta Mª Carmen**. Hilaren 30ean urrezko ezteiak! Oso ondo pasatu, muxuak etxekoan partez.



Zoriondu ezazu **BARREN**en!

PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:
4'50€

Argazki bikoitza:
7€

Hirukoitza:
9€

Hiru lagunetik gorako taldeak:
15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:
3'50€

Argazki bikoitza:
6€

Hirukoitza:
8€

Hiru lagunetik gorako taldeak:
12€

Argazkiak **eguztzen eguerdia (12:00etarako)**

baino lehen ekarri behar dira
BARRENEKO bulegora,

edo barren@elgoibarkoizarra.com

e-postara bidali.



Elgoibar eta Mendaroko komertzio eta enpresen gida prestatzen dihardugu

2014 KOMERTZIO ETA ENPRESEN GIDA

Zure enpresaren helbidea edo telefono zenbakia eguneratu nahi badituzu, deitu **943 744 112** edo **943 743 704** zenbakira edo idatzi barren.publi@elgoibarkoizarra.com helbidera.

Mª JOSE RUIZ DE PORRES Doktorea
GINEKOLOGOA

Urkizu, 13 943-120200 eta 943-120204

LEKUALDAKETA

Eibarko

Centro Médico

Osasundegia



cmeibar@hotmail.com www.centromedicoeibar.es

ZU ZAINTEKO ZERBITZU ONENA eskaintzeaz gain, profesionaltasunari eta pazientearekiko tratu atseginari eusten jarraituko diogu.

30 barixakua

Aisialdia

17:30 Kiribil

Elgoibarko Izarrak antolatuta, 2tik 6 urtera arteko ume eta haien gurasoentzako egitasmoa. Kalegoen plazan.

Erakusketa

18:30 Argazki erakusketa

Javier Landerasen Kyoto Rikyu argazki erakusketa inauguratuko dute. Ekainaren 14ra arte egongo da ikusgai Kultur Etxean.

Musika

19:00 Kontzertua

Musika Eskolako talde finkoek kontzertua eskainiko dute, Herriko Antzokian.

Areto futbolera

19:00 Gehituz jaia

Debabarrena kirol elkarteak antolatuta, areto futbolaren jaia inauguratuko dute. Maalan.

Musika

23:00 Mery May & The Muppets

Sinuosek antolatuta, Kultur Etxeko Sotoan.

31 zapatua

Gure Esku Dago jaia

12:00 Informazio mahaia

Metroak eta kamisetak jarriko dituzte salgai, eta pinak egiteko aukera egongo da. Kalegoen plazan.

12:30 Informazio mahaia

Burutxiki handiak eta txorizo pintxoak, Kalegoen plazan.

13:30 Giza katea

Kalegoen plazatik hasita, trikitilariekin.

14:00 Agurra

Kalegoen plazan, kantu eta bertsoekin.

Dantza

12:30 Aurreku eta soinu zahar erakustaldia

Txapelketan parte hartu duten hainbat dantzarik eskainiko dute dantzaldia. Kalegoen plazan.

Areto futbolera

14:30 Gehituz jaia

Debabarrena kirol elkarteak antolatuta, Madalan. Iluntzera arte musika giroa egongo da.

5 eguena

Hitzaldia


19:00 Etxe Kaleratzeak Stop-ek antolatuta IRPHari buruzko hitzaldia emango du Jose Mari Errauzkinetik. Eibarren, Portalean.

6 barixakua

Oin Alai


8:30 Ekitaldi berezia

Ikasturte amaierako ekitaldia egingo dute. Kalegoen plazatik, kalejiran joango dira Herri Eskolara eta Ikastolara.



Mundakako udalekuen izenemate epea igande honetan amaitzen da.

Gaur, maiatzak 23, 17:00etan Ludotekako Aste Nagusiari hasiera emango diogu txupinazoarekin Madalako karpan.



BOTIKA ORDUTEGIAK: 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00
GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
31 Ibañez 1 Ibañez 2 Fernandez 3 Etxeberria 4 Fernandez 5 Yudego 6 Zabaleta 7 Barrenetxea	Astelehenetik igandera Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142
Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638
Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384

ZINEA

«El gran hotel Budapest»
30, barixakua: 22:15
31, zapatua: 19:00/22:15* (VOS)
1, domeka: 19:00
2, astelehena: 21:30





Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabillioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea
Xixilion 2-2. pabillioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.lodoso.es

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 531 847
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 254 522

Pagoaga

Biltegia eta tailerra
San Antolin, 13
☎ 943 740 279
Bulegoa eta erakusketa
Pedro Migel Urruzuno, 8
☎ 943 943 740 512
tienda@pagoagasa.com

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 756 044/659 334 323

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro
☎ 943 755 062/607 755 062

Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 740 530/605 714 905
Faxa: 943 531 825



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkalko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20



Gremioen GIDA



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara
Zapatuetan:
10:00etatik 14:00 etara

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetu guzul!



Doctor Antonio Murillo
Hezur Birsortuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Leidako Unibertsitatea eta Madril.**
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea, Madril.**
Implantologia Masterreko Irakaslea. **Leidako Unibertsitatea.**
Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.**
Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almería, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora Ainhoa Zulueta
Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.**
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Autran Institutua, Bartzelona.**
Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**
Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

MUTUAK ETA ASEGURUAK
GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGONSTONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADL...
Galdetu guzul!

